

Liburua ireki, eta barruan sartu

Gaur da Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna, baina ekitaldiak hilaren 12an egingo dira, Aste Santua saihesteko

JUAN LUIS ZABALA.

Hans Christian Andersen idazlearen jaiotzaren urteurrenarekin bat eginez, apirilaren 2an ospatzen da Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna, eta ospakizun horrek beti izaten du oihartzunik Euskal Herrian. Aurten, ordea, ospakizunaren egunak Aste Santuko oporraldiekin bat egiten duenez, apirilaren 12an izango dute data nagusi Galtzagorri euskal haur eta gazte literaturako elkarteak eratu dituen ekitaldiek.

Noemi Villamuzak egindako kartela eta Eliacer Cansinok idatzitako testua zabaldu ditu aurten mundu osora IBBY Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Elkarteak, ospakizuna gogoratuz. IBBYk koordinatzen ditu Haur Liburuaren Nazioarteko Eguneko ekitaldiak, eta IBBYren Espainiako atalari, OEPLIri, egokitu zaio aurten kartela eta mezuaren ardura hartzea. Cansinoren testuaren euskarazko itzulpena Galtzagorri elkartearen webgunean aurki daiteke. Nagore Tolosa da itzulpenaren egilea. Irakurketarako deia da Cansinoren testua: "... hartu liburu bat, ireki, irakurri..., gomendatzen du pasarte batean.

Askotariko ekitaldiak

Euskal Herriko 29 hiri eta herritako liburutegi zein ikastetxeetan egingo dira Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldiak. Askotarikoak dira apirilaren 12an edo inguruko egunetan egingo diren ekitaldiak: kamishibai ipuin kontaketa teknikan oinarritutako ikuskizunak egingo dira Abusun (Bizkaia) eta Donostian, hilaren 12an; Irakurzaletasuna sustatuz ikastaroa gidatuko du Juan Karlos Alonsok, hilaren 14tik 16ra bitartean, Donostian; Tabuak haur literaturan hitzaldia emango du Txabi Arnalek, Eibarren, hilaren 12an; erakusketak, ipuin kontaketak eta tailerrak egingo dira beste hainbat lekutan.

Armiarma atarian, Hans Christian Andersen Hamaika ipuin (Ibaizabal, 1997) liburua jarri dute on line. Martxel Eguen taldeak euskaratu zuen liburua.